SANTUENEA MARTXAN!

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkartea

AZAROAK 20, OSTIRALA
Ontzien dekorazioa
17:00 Gure txikiak ludotekan.

AZAROAK 21, LARUNBATA
Belarritako eta koilareen tailerra
17:00 Gure txikiak ludotekan.

21

Larunbata 09:30 Sutegiko auditoriumean



10. Bizipoza jardunaldia

Antolatzailea: Bizipoza · **Izen ematea:** www.labur.eus/bizipoza10

Nola kokatu haurren eskubideak erdigunean? Eta errealitate bihurtu?

Bizipozak, eragiteko helburuaren barruan, haurren oinarrizko eskubideen inguruko lanketa abiatu zuen urtarrilean. Jardunaldi hauetan, gurasoak, irakasleak, familiak, elkarteak eta instituzioak elkartuko gara elkarlanerako bide-orri bat eraikitzeko, haur guztiek beren bizi-proiektua garatzeko behar ditzuten eskubideak bermatzeko.

26

TXIRIKORDO

Osteguna 16:30 Txirikordako beheko solairuan

3. adinekoentzako zineforuma

Antolatzailea: Txirikorda · **Sarrera:** doan.

Pelikula zein den egun berean esango da.

28



Larunbata 11:00-14:30 Frontoian

Hurbilagoren Udazkeneko Azoka

Antolatzailea: Hurbilago Elkartea.

Azokan zer: liburu eta diskoen azken nobedadeak, ipuinak, koadernoak, jostailuak, diseinu bereziko kamisetak, sudaderak, poltsak, motxilak, zeramika produktuak, bitxiak, laminak eta ilustrazioak, panpinak, kandelak, egurrezko produktuak eta gehiago.

11:30-14:30 Azokako salmenta postuak.

11:30-14:30 Tailerrak, Ziortza Gazte Elkartearen eskutik.

Azokan zehar, gaztainak eta sagardoa doan. (azokan erosketa eginda)

28



Larunbata 12:00-14:00 Mikel Laboa plazatik irteera

Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Nori zuzendua: Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.

Euskal kantak maite badituzu, animatu parte hartzera! Ondo pasako dugu!

EUSKARAREN ASTEA

AZAROAK 21, LARUNBATA

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore: MUXU BETE URTE ikuskizuna

17:00 Oiardo Kiroldegian

Antolatzaileak: Noaua! eta Usurbilgo Udala.

Sarrerak: 8€ usurbilkultura.eus webgunean. Sarrerak azaroaren 3an jarriko dira salgai.

Musuz bete ditzagun udazkena, negua, udaberria eta uda. Musuz urtea eta bizitza. Musuekin gure lurra ere biraka jartzen delako, kantuan eta dantzan. Eta gu berarekin!

Ze zapore du marigorringo baten musuak? Konta daiteke urte oso bat musutan? Zatoz paila-zookin eta jakingo duzu!



AZAROAK 28, LARUNBATA

Euskararen Gala

22:00 Aginagako Eliza Zaharrean

Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Sarrerak: usurbilkultura.eus -en. 10€.

Gurean urteroko hitzordu bihurtu den festa: bakarrizketak, musikariak, dantza eta askoz gehiago!

Musika: Anne Etchegoyen / Anuk eta Elene / Patrice Dumora (Akelarreko abeslaria)

Antzerkia: Heroiaren mina (Gaizka Chamizo)

Dantza: Klake dantzariak

Bakarrizketak: Txiki / Idoia Torregarai / Janire Atxurra

Magoa: Asier kidam

Marrazkilaria: Unai Gaztelumendi

ABENDUAK 3, OSTEGUNA

EUSKARAREN EGUNA

Ekintzak egun osoan zehar. Usurbilkultura.eus webgunean izango da ekimenen berri eguna gerturatu ahala.

29

Igandea Goizean zehar Dema plazan

XXV. Erle Eguna

Antolatzailea: Erle Lagunak · **Laguntzailea:** Usurbilgo Udala

09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa. Postreen salmenta.
Marrazki lehiaketa.

11:00-14:00
- Azoka. Postuetako salmenta.
- Balerdipekoen eskutik tailerra.
- Ezti eta txokolatezko goxoak.
- Ezti dastaketa.
- Erakusketak Sutegin:
  Erleak, eztia ontziratzeko prozesua...
  Marrazki Lehiaketako lanak, bideoak.

13:30 Euskal Herriko XXV. Ezti Lehiaketako sari-banaketa:
- Ezti Lehiaketako irabazleak.
- Gozogintzako irabazleak.
- Marrazki Lehiaketako irabazleak.



Azoka: Ezti eta erletik datozen hainbat produkturen salmenta.

ERAKUSKETAK

URRIAK 15-AZAROAK 8

AITZINERA ERAKUSKETA

Ostiraletan: 18:30-20:30 · **Larunbatetan:** 11:00-13:30

Non: Sutegiko erakustaretoan · **Antolatzailea:** Aitzinera.

Zergatik erantzun izan dugu euskaldunok altxamendu bidez 500 urtez haratago? Jabetutako borroken bidez nahiz oharkabean.

URRIAK 9-AZAROAK 22

ALCER GIPUZKOA. 50 URTEKO IBILBIDEA

Antolatzailea: Alcer Gipuzkoa

Alcer Gipuzkoa zer den, nola sortu zen eta 50 urte hauetan izan duen bilakaera ezagutzeko erakusketa, organo emaitzaren alde egindako lana ezagutarazteko eta giltzurrun kolektiboari mende erdi honetan eskainitako laguntza bistarazteko.



BISITA GIDATUAK

650 USURBIL bizi

- **Azaroak 7** **Gerraren Memoria Ibilbidea**
  11:00 Mikel Laboa Plazan.
  (Ondarearen Europako Jardunaldiaren programazioaren barruan).
- **Azaroak 8** **Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudioa**
  11:00 Sutegi Udal Liburutegian.
  (Ondarearen Europako Jardunaldiaren bisita gidatua).
- **Azaroak 21** **Salbatore Elizaren ondarea organo erakustaldiarekin**
  (Gaztelaniaz) 11:00 Salbatore Elizan.
- **Azaroak 22** **Museo Irekia familientzako KRII Kolektiboarekin**
  11:00 Sutegi Udal Liburutegian (Ondarearen Europako Jardunaldiaren bisita gidatua).



Sarrerak https://650usurbilbizi.eus/agenda/

Telefonoa: 747 485140 turismoa@650usurbilbizi.eus

KZ-GUNEKO IKASTAROAK

kz gunea

AURREZ AURREKOAK

ADIMEN ARTIFIZIALA. ChatGPT eta haren alternatibak (6 ordu)
Azaroak 02-04 09:00-11:00

GOOGLE. Kudeatu zaitez Google aplikazioekin (16 ordu)
Azaroak 05-16 09:00-11:00

OFIMATIKA TRESNAK. LibreOffice (20 ordu)
Azaroak 17-30 09:00-11:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabala.

Azaroan Kzgunea: goizez 09:00-13:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30
Itxita
Goizez

2	3	4	5	6	●	○
9	10	11	12	13	●	○
16	17	18	19	20	●	○
23	24	25	26	27	●	○
30						

Sutegi Udal Liburutegia · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/



Usurbilgo Udala
Kultura, Euskara eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

usurbilkultura.eus
Herritarron tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko

USURBIL KULTURA 2026ko azaroa

Larunbata 19:00 Herrian	GAU BELTZA: HEZUR LAPUR BADATOR!!	urriak 31
Larunbata 19:00 Sutegin	RUPER ORDORIKA & MUGALARIAK	urriak 31
Igandea 11:00 Frontoian	XXX. ARTISAU AZOKA	1
Igandea 11:00 Sutegin	BOOKTEGI: AHALDATU FILMA	1
Igandea 12:00 Sutegin	BOOKTEGI: ANARIKETA	1
Igandea 18:00 Sutegin	ERRIGORA DOKUMENTALA	1
Astelehena 18:00 Liburutegian	BETI IKASTEN! IRAKURRI, ZERTARAKO?	2
Asteartea 18:00 Liburutegian	BETI IKASTEN! PANTAILEKIN, ZER EGIN?	3
Osteguna 18:00 Sutegin	SOLASALDIA: "HERIOTZA ETA KULTURARTEKOTASUNA"	5
Ostirala 19:30 Aginagako eliza Zaharrean	MIKEL URDANGARIN	6
Larunbata 10:00 eta 18:00 Herrigunean	MUNDUALDIA	7
Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO FILMA: PATRICK. HEROI TXIKIAK. BALENTRIA HANDIAK	8
Astelehena 18:00 Liburutegian	ALAINE AGIRREREN "EURI ETA ATERI"	9
Osteguna 18:00 Liburutegian	IPUIN KONTAKETA SAIOA PELLO AÑORGA	12
Ostirala 17:00 Emakumenon Etxean	EMAKUMEA ETA ARIKETA FISIKOA HITZALDIA	13
Ostirala 18:00 eta 19:30 Sutegin	GO!AZEN! TELESAILAREN ESTREINALDIA	13
Ostirala 19:00 Zubietako elizan	HERRIMAMITUZ BERTSO SAIOA	13
Ostirala 19:00 Zubietako Elizan	HERRIMAMITUZ BERTSO SAIOA	13
Larunbata 11:00 Frontoian	USURBIL-AÑORGA BIZIKLETA MARTXA	14
Larunbata Egun osoko jaia	USURBILGO TXALAPARTA FESTA	14
Astelehena 18:00 Potxoenean	TAILERRA: "GURE ERABAKITZEKO AHALMENA OSASUN SISTEMAREN AURREAN"	16
Osteguna 18:00 Kalejira 19:00 Sutegin	SANTA ZEZILIREN OMENEZKO KALEJIRA ETA KONTZERTUA	19
Osteguna 19:00 Potxoenean	LIBURU AURKEZPENA: "EUZKADIKO BORROKALARIETAKO BAT NAIZ. INTERNAZIONALISTAK GIPUZKOAN 1936KO GERRAN"	19
Ostirala 17:00 Santuenean	ONTZIEN DEKORAZIOA	20
Ostirala 19:00 Salbatore Elizan	UDAZKENEKO ORGANO-KONTZERTUA	20
Larunbata 09:30 Sutegiko auditoriumean	10. BIZIPOZA JARDUNALDIAK	21
Larunbata 17:00 Santuenean	BELARRITAKO ETA KOILAREEN TAILERRA	21
Larunbata 17:00 Oiardo Kiroldegian	PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE. MUXU BETE URTE! EMANALDIA	21
Astelehena 18:00 Liburutegian	IPUIN KONTAKETA: INES BENGOA	23
Osteguna 16:30 Txirikordan	ADINEKOEN ZINEFORUMA	26
Ostirala 17:00 Liburutegian	IRAKURKETA SOLASALDIA "MARI XOR"	27
Larunbata 11:00 Frontoian	HURBILAGOREN UDAZKENEKO AZOKA	28
Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazan	KANTU JIRA	28
Larunbata 22:00 Eliza Zaharrean	EUSKARAREN GALA	28
Igandea 09:00etatik aurrera	XXV ERLE EGUNA	29
Ostirala 17:00 Liburutegian	IRAKURKETA SOLASALDIA "ZURTZ"	30

2026ko AZAROA

USURBIL Kultura



AZAROAK 14
USURBILGO TXALAPARTA FESTA

AZAROAK 1

XXX. USURBILGO ARTISAU AZOKA

EKINTZAK

URRIAK 30 - AZAROAK 1

BOOKTEGI
JAIALDIA 2026

Antolatzailea: Booktegi.
Laguntzaileak: Noaua!, Zumarte eta Usurbilgo Udala.

URRIAK 31, LARUNBATA

Elkarri irakurriz bi solasaldi

10:30 Zumarte Musika Eskolan.
Moderatzailea: Irati Zubia.
Sotoa taldea: Bea Salaberri, Iñigo Santrustegi, Harkaitz Cano.
Ganbara taldea: Ugaitz Agirre, Lizar Begoña, Agustin Arrieta.

Udarregi ikastolako Booktubers

17:00 Sutegin. Udarregi Ikastolako ikasleek, iaz bezala, hainbat liburu gomendatuko dizkigute bideo-formatuan.

Arbaso Eguna

17:00 Sutegin.

Kontzertua: Ruper Ordoria & Mugalariak

19:00 Sutegin. **Sarrera:** 15 € eskudirutan ordainduko dira atarian. Aurrez **izen ematea:** usurbilkutura.eus
Oharra: 18:45 baino lehenago iritsi, mesedez. Beranduago etortzen bazara eta norbaitek eskatzen badu, gerta liteke zure sarrera eskatzen duen horrek jasotzea.

Arkaitz Miner, Ruper Ordorika, Lutxo Neira, Felix Buff.

AZAROAK 1, IGANDEA

Ahaldatu filma

11:00 Sutegin. 2025eko urriaren 17an, Sutegin, Mihise taldeak bere bigarren diskoa aurkeztu zuen: Ahaldatu. Kontzertua grabatu genuen, eta aurtengo Booktegi Jaialdian aurkeztuko dugu kontzertuaren filma.

Anariketa

12:00 Sutegin. Iazko Rupertorio ekitaldian bezala, aurten hainbat lagunek Anariren abesti bana hautatu dute, eta zuzenean abesti horiek interpretatu egingo dituzte, nork bere erara.
Abesti batzuen bertsio bereziak entzun ahalko ditugu, baita letrei buruzko hausnarketak, bizipenak, errezitaldiak… ere. Interpretatzaile bakoitzak abestiaren inguruko ideiak, emozioak, pasarteak partekatuko ditu gurekin.

31 urria
Larunbata | 19:00 | Herrian zehar eta bukaera Dema Planzan

Gau Beltza: Hezur lapur badator!!!

19:00 Herrian zehar eta bukaera Dema Planzan.
Antolatzaileak: Herriko eragile ezberdinak (Udarregi, gurasoak, Noaua! K.E., Orbeldi dantza taldea, Zirimara, Gaztelekua...) · **Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.
Nori zuzendua: parte hartu nahi duen guztiei.
Mozorrotuta etorri behar da.
Hezur Lapur izaki misteriotsu bat da eta Gau Beltza hurbiltzen denean, bere ezkutuko zulotik irten eta Usurbilera etortzen da; itxura beldurgarria du, eta inguruan ikusten duen argia zurrupatzen du. Etxebizitzetako argiak lapurtzen hasi zen, eta kale eta etxeetako argiak beregatzeaz gain, herritarren barruko argia, itxaropena, ametsak eta pozak lapurtzen saiatzen da. Baina guk Ilargiren laguntza izango dugu eta kantu-jolasean beldurrak uxatu eta argia berreskuratzen saiatuko gara. "AGUR HEZUR LAPUR, AGUR BELDUR"
19:00 Gau Beltza festaren hasiera erronken guneetan.
19:30 Erronkak (maila bakoitzeko gurasoen laguntza beharko da)
HH Aranerrekan.
LH 1-2 Errekatxikin.
LH 3-4 Kalezarren, plazan.
LH 5-6 Udarregi eraikin gorriko goiko zelaian.
20:30 Kalejira Artzabaldik Dema plazara Zumarteko trikitilariekin.
Ondoren, beldurrak erre eta **The Hastelen´s** herriko taldearen kontzertua.



1
Igandea | 11:00 | Frontoian eta Askatasuna plazan

XXX. Artisau azoka

Antolatzailea: Aitzaga Elkartea.
Aurtengoa XXX. Artisau Azoka izango da. Frontoian eta Askatasuna plazan hirurogei postu inguru izango dira: bitxigintza, kosmetika, egur-lanketa, zeramika, otarregintza, metalgintza, gozogintza... Baserri-giroko azoka ere egingo da, eta taloa jateko aukera izango da.

1
Igandea | 18:00 | Sutegiko auditoriumean

Dokumentala: Errigora, sustraitik espaziora

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta UEMA · **Iraupena:** 54 minutu · **Sarrerak:** doan.
2013an ospatu zuen Errigorak lehen Euskarari Puzka kanpaina, Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzak bizi zuen larritasun ekonomikoaren aurrean Euskal Herri osoko elkartasuna ehuntzea helburu zuena. Hamahiru urte beranduago, beharrak hor dirau. Hala ere, hamar urteko bidean erein diren haziak ere hasiak dira loreak ematen. Dokumental honen bitartez, Errigoraren jarduna eta hausnarketak barrutik ezagutuko ditugu: kontserba-etxeko produkzio-lerrotik hasi eta euskararen aldeko Santxikorrota lasterketaraino. Hamaika bilera, auzolan, banaketa, ezintasun… begi-bistan.

LIBURUTEGIKO EKINTZAK

Udal liburutegia

Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia

Beti ikasten!
Guraso, irakasle eta hezitzaile ororentzat erreflexiorako topagune parea

AZAROAK 2, ASTELEHENA
Irakurri zertarako?
18:00 Udal liburutegian
Bidelagun: Yolanda Arrieta.
Izen ematea: Udal liburutegian.



AZAROAK 3, ASTEARTEA
Pantailekin zer egin?
18:00 Udal liburutegian
Bidelagun: Mikel Cerezo.
Izen ematea: Udal liburutegian.



AZAROAK 9, ASTELEHENA
Alaine Agirreren "Euri eta Ateri"
18:00 Udal liburutegian.
Idazlea gure artean izango da. Liburuak eskuragarri liburutegian.



AZAROAK 12, OSTEGUNA
Pello Añorgaren ipuin kontaketa
18:00 Udal liburutegian
Norentzat: 3-5 urteko haurrentzat.
Txikienak heldu batek lagunduta etortzea komeni da.



AZAROAK 23, ASTELEHENA
Ines Bengoaren ipuin kontaketa
18:00 Udal liburutegian
Norentzat: 6 urte baino gehiagoko haurrentzat..



AZAROAK 27, OSTIRALA
Irakurketa solasaldia
17:00 Udal liburutegian
Norentzat: 9 urte baino gehiagoko haur eta gaztetxoentzat.
Mintzagai izango dugun liburua, Yolanda Arrietaren MARI XOR.



AZAROAK 30, ASTELEHENA
Irakurketa solasaldia
17:00 Udal liburutegian
Norentzat: 12 urtetik gorako gaztetxoentzat.
Mintzagai izango dugun liburua, Yolanda Arrietaren ZURTZ, Euskadiko Haur eta Literatura Sariaren irabazlea.



6
ostirala | 19:30 | Aginagako Eliza Zaharrean

Mikel Urdangarinen kontzertua. Uhina

Antolatzailea: Bizimaña · **Sarrerak:** 15 euro. www.mikelurdangarin.eus
30 urteko ibilbidea, 20 disko eta bere bandarekin partekatutako eszenatoki kopuru kontaezin baten ondoren, Mikel Urdangarinek bidaia berri bati ekingo dio, jatorrira itzuliko da, kantu biluzira, artistaren, gitarraren eta publikoaren arteko elkarrizketa intimoa. Ez da kontzertu bat, ia aitorpen bat da, aukera paregabea haien kantuak jaio ziren bezala, bere erarik garbi eta funtsezkoenean, entzuteko.

MUNDUALDIA 2026

Mundualdiak, Usurbilgo jatorri aniztasuna ospatzeko festak, bi eguneko egitarau izango du aurten.

HERRI ZAINTZAILEA
USURBIL

AZAROAK 5, OSTEGUNA
Solasaldia: "Heriotza eta kulturartekotasuna"
18:00 Sutegiko auditoriumean.
Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
Sarrerak: doan usurbilkultura.eus bidez. **Hizkuntza:** gaztelania.

"Komunitatetik, heriotzaz" zikloa
Hainbat jatorritako herritarren arteko solasaldia, sorterrian heriotza bizitzeko duten moduaz.

AZAROAK 7, LARUNBATA
Mundualdia
10:00 Herriegunean. Zirimara Familia Plana.
18:00 Frontoian. Hainbat jatorritako jakien dastaketa, Kolonbiako dantza eta musikaz lagunduta.



8
Igandea | 17:00 | Sutegiko auditoriumean

Haurrentzako zinea: Patrick. Heroi txikiak. Balentria handiak.

Antolatzaileak: Ziortza Gazte Elkartea eta Usurbilgo Udala.
Sarrerak: 3,30 euro. Usurbilkultura.eus webgunearen bidez. **Iraupena:** 88 minutu.
Norentzat: Guztientzat egokia eta haurrentzat bereziki gomendatua.
Patrick izeneko hegal bakarreko tximeleta ausart eta maitagarri bat atoi batean ezkutatzen da bere bizitzako bidaia egiteko. Bere lagunik onenarekin, Marty izeneko beldarrarekin, eta Jenniferrekin, altuerari beldur dion tximeletarekin, ustekabeko heroi bihurtuko da. Baina, horretarako, bere beldur handienari aurre egin eta bere berezitasuna onartu beharko du zoritxarraren gainetik garaile ateratzeko, klima-ereduen aldaketen, gizakien eta mendeku bila dabiltzan hiru txori gaiztoen aurka borrokatzen den bitartean.

13
Ostirala | 17:00 | Emakumeon Etxea

Emakumea eta ariketa fisikoa

Hizlaria: Agurtzane Alkorta Urdanpilleta.
Saioaren helburua izango da, estetika, ispilua... berekiko duten exijentzia eta presioak aldea batera uztea eta emakume orok bere bizitzako etapetan gorputza ulertzea, zaintzea eta indartzea, betiere konfiantzaz eta errespetuz.

Usurbilgo Emakumeon etxea

13
Ostirala | 18:00 eta 19:30 | Sutegiko auditoriumean

"Go!azen" telesailaren denboraldi berriko lehen atala

Sarrerak: doan usurbilkultura.eus webgunean. Azaroaren 2tik aurrera eskuragarri.
Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, UEMA eta EITB.
Norentzat: nerabeei zuzenduriko saioa da. **Saioaren iraupena:** 60 minutu inguru.
"Go!azen" telesailaren 13. denboraldiak denetariko osagaiak izango ditu: abenturak, misterioa, gaztaroko maitasuna, komedia, drama… Horrekin batera, gaur egungo eta betiko euskal talde eta abeslarien kanten moldaketak entzun ahal izango dira.

13
Ostirala | 19:00 | Zubietako elizan

Herrimamituz bertso saioa

Antolatzailea: Zubieta Lantzen · **Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.
Bertsolariak: Andoni Egaña Makazaga eta Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi" eta Xabier Alberdi Lonbide historialaria.



14
Larunbata | 11:00 | Frontoian

Usurbil-Añorga bizikleta martxa

Antolatzailea: SORTALDE, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea.
Bizikleteren erabilera sustatzeko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari Usurbilgo herrigunea eta Añorga zuzenean lotuko dituen bidegorria egin dezan eskatzeko, bizikleta martxa egingo da.

BIZIZ

14
Larunbata | Egun osoz | Herrigunean

Usurbilgo Txalaparta Festa

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea eta 650 Usurbil Bizi!
Bazkarirako Txartelak: Helduek 30 € usurbilkultura.eus bidez. Bazkarirako txartelak eskatzeko azken eguna azaroaren 10a.
11:45 Herri erromeria.
Adar deia, Zuaznabartarrak, Goikoetxeatarrak, Zabalegitarrak, txalaparta ikasleen emanaldia, albokariak (Oiarzungo Albokalteak eta Usurbilgo Adarbakarrak), txalaparta irekia eta hamaiketakoa.
Lekua: Mikel Laboa plazan (euria eginez gero, Askatasuna plazan izango da).
14:00 Kalejira Albokariekin Patri jatetxera.
14:30 Bazkaria Patri Jatetxean (txartelak aurrez erosi behar dira).
- Bazkarian zehar Txalaparta irekia.
18:30 Olanoenea plazatik hasita kontzertuak herrian zehar.
Jexux Artze Txalaparta eskola
Makilakikki
Esku-Txa hirukotea Txalaparta &+
20:00 **Bihotx** kontzertua · **Lekua:** Dema Plaza.

16
Astelehena | 18:00 | Potxoenean

HERRI ZAINTZAILEA
USURBIL

Tailerra: "Gure erabakitzeko ahalmena osasun sistemaren aurrean"

Hil Arte Bizi egitasmoko Nere Erkiagak gidatutako tailerra. Pazientearen autonomiari eta osasun sisteman ditugun eskubideei buruz jardungo du Erkiagak, eta Aurretiazko Borondateen Dokumentua nola bete azalduko du, borondatea adierazi ezin dugunerako eskura daukagun tresna baliotsua.

19
Osteguna | 18:00 Kalejira | 19:00 Sutegiko auditoriumean

Santa Zeziliren omenezko kalejira eta kontzertua

zumarte

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.
Sarrera: Doan.
18:00 Euskal Herriko musika eskola guztiek, bakoitzak bere herrian "Musikalean" kalejira egingo dugu Zumarte Musika Eskolatik hasita triki-pandero, haizezko eta perkusio ikasleekin.
19:00 Sutegin, hainbat talde instrumentalen kontzertua egingo dugu.

19
Osteguna | 19:00 | Potxoenean

Liburu aurkezpena: "Euzkadiko borrokalarietako bat naiz. Internazionalistak Gipuzkoan 1936ko Gerran"

Antolatzailea: Usurbil 1936
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin argitaratutako "Euzkadiko borrokalarietako bat naiz. Internazionalistak Gipuzkoan 1936ko Gerran" ikerketa aurkeztuko dute.
1936 elkartean ondo ezagunak ditugu **Aitzol Arroyo historialaria eta Aitor Azurki kazetaria** Usurbilen gerrari buruzko ikerketan bidelagun izan ditugulako. Orain gerra hartan parte-hartze aktiboa izan zuten nazioarteko borrokalarien historia aski ezezaguna atera dute argitara. Borrokalari haien artean, gutxienez bat Usurbilen aritu zen.



20
Ostirala | 19:00 | Salbatore Elizan

Udazkeneko organo-kontzertua

Antolatzailea: Organoaren Lagunak, Fray Jose Echebarria Elkartea, Usurbilgo parrokia eta Usurbilgo Udala.
Organo-jolea: Ignacio Arakistain.

